

1991ko Apirila/25. Alea

EIBARKO UDALA EUSKARA BATZORDEA

Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Turismo Sailaren babesarekin

... eta kitto!

San Andres "hospitxala" Nagusien
Egoitza, 100 lagunentzako hotel berezia

Kanpotik ikusita Nagusien Egoitza dirudi, batez ere letreroari kasu egiten badiogu. Zentruko Estatutoek ere horrela diote. Baina 20 urte eta laurogei kilo baino gehiagoko neskaxa, Gorlizeko ospitaletik pasa ondoren hemen dago; erorketa izan zuenetik ezin izan da mugitu. Ez da elbarri bakarra ez eta dagoen gazte bakarra. 1937an eta 1947an jaiotako beste bi gizonak egoera berdina bizi dute. Bada 38 urteko andrea, atzeratua bera... Azken urteetan, alde batetik atzeratuak direla, bestetik elbarrituak -aurtengo urtarrilean Foru Aldundiko sendagileak eginiko sailkapenean 44 azaltzen dira, erdielbarrituak barnean kokatzen badira ere- batz besteko adinaren jeitsiera ekarri dute. Duela bi urte 75koa zen, gazteekin ere kontatuta. Orain, 80 gainditzea ez litzateke zaila izango normalena, baina gazteenak asko jeisten dute.

Aldaketarik jasan ez duen datua gizon eta emakumeen arteko portzentaia da. Gaur egun 62 emakume eta 37 gizon dira eta hau, gutxi gorabehera, beti izan da horrela. Zaharrenak -Iruno emakume bat- 96 urte ditu. Beste hamaikak 90ak pasatu dituzte, ia hogeitahamarrek 80ak, ia berrogeiek 70ak eta hogeitatu bat dira 70 urte baino gutxiago dutenak. Betebehar bakarra herrian bi urtez enpadronatua egotea denez, nahiz eta gehienak Eibarkoak izan edo bestela probintziakoak, badira ere kanpoan jaiotakoak: Bizkaia, Araba, Nafarroa, Burgos, Logroño, Valladolid, Salamanca, Zamora, Palencia, Madrid, Oviedo, Cuenca, Orense, Badajoz eta Córdoban, hain zuzen.

Urtero izaten diren alta eta baje kopurua -bata bestearen funtzioan doa, normala denez- 12tik 15rako da. Itxoi ten dagoen jendearen lista 20 batekoa da, honek esan nahi duenarekin: urte bat baino gehiagoko itxaronaldia derrigorrezkoa dela, duela 5 urtetik hona Egoitza "al completo" dagoelako. Bajak hiltzearekin loturik doaz, Egoitzak ez bait du inork bere gogoz uzten. Gehienez jota ere bat edo beste izan da kaleratua, portaera txarra izateagatik, batez ere mozkortzeagatik edo burrukak sortzeagatik.



Gauero goardia zerbitzukoaren esku gertatzen dira. Hau, txirrinaren zain, panelari begira. Egoitza honetako 99 bizilagunek ordurako beste egun bateko momentu argienak gastatu dituzte. Bazkalostean emandako paseoa, ahaztuta; aldameneko Egoitzara eginiko bueltatxo, ia loak iren

■ Denbora onarekin, txangoak eta Nagusien Astea

Eskaintza gehienak hemendik aurrera biziko ditugun egunei dade zuzenduak. Udaberriarekin batera, landare gisa bizi izateari adio esateko edo, maiatzean Nagusien Astea dago antolatutik. Bertako solasaldi eta aparteko meriendak gauza guztiek ahazten zaizkienentzat egiten dira bereziki; aldrebeskerietan mugitzen direnak ere gonbidatuak, noski. Badago joku guztien artean zaletasuna piztu duena: zer izango eta... bingoa, benetan gehien atsegin dutena, txanponak erabiltzeak duen erakargarritasuna dela eta. Emaizta onak, egitan, nagusien erantzunei jarraituz.

Urtean zehar ere izaten dira txango pare bat, biak ekainean, autobusa hartu eta Euskal Herriko paraje bat edo beste ikustatzeko; bide batez, Egoitzetik kanpoko bizitza dastatzeko aukera.

Bizitza normalean, jeiki eta gosaldutik ondoren kaleratzeko auke-

ra dute -ahal dutenek, behintzat- eguerdirarte. Bazkaltzera ez badoaz, abisatzearekin nahikoa da. Arratsaldean, berdin: irten, paseatu, ... Telebista gustokoa dute, bistan dago. Liburutegia, ordea, ez dute ezertarako erabiltzen, han dago zabalik baina...

Goardia zerbitzuko bere lanean hasi baino lehen, 24 pertsonen osatutako taldea ari da alde batetik bestera, lanean. Gehienak, dudarik gabe emakumezkoak. Bi gizon dade bakarrik lantalde honetan, biak nagusien arteko gizonak zaintzeko. Emakume artean sukaldariak, garbitzaileak, kamarerak, osasun laguntzaileak, bereziki nagusiekin denbora emateko bat eta bost monja.

■ Diputazioak ez du handitzerik uzten

Aurrekontuari dagokionean, iazko 82 milioiak 1991ean 93 bihurtu dira; honek %13aren igoera adierazten du. Laguntzak, bestalde, puntu desberdinetatik heltzen dira:

tsia. Beste batzuk, hori ere ezin mugimendua debekatua bait daukate: gorputzak ez die apenas laguntzen. Hala ere, barruan daude, hemen dira. Kanpoan beste 20 izena emanda eta noiz sartuko zain. Dena den, urte t'erdi bat itxaron behar, seguruenik.

Foru Aldundiak ia 29 milioi, Junta de Beneficencia social delakoak 3 milioi, Udaletxeak milioi erdi, kuantak eta beste motatako laguntzak 2 milioi eta zazpirehun mila, garajeak 5 milioi etab.

Horrez gainera, urtero berritzen den prezioen tarifa dago indarrean. Elbarrituek hilean 70.000 pezeta ordaindu behar izaten dute, erdielbarrituek 50.000 eta mugitzeko gai direnek 39.000 hilerok. Badira ere duten soldatarekin ezin dutenak kopuru hauek ordaindu: kasu hauean, pentsioaren %80a eman behar izaten dute.

1984ean 3. Fasearen hasierarekin (Aspaceko zonaren inaugurazioa) elbarrituentzat lehenengo 17 ohe berezi prestatu ziren eta hauentzat esparru bat hasi zen erakitzten. Honek jarraipena izan zuen iazko ekainean: 10 ohe gehitu zaizkienean eta, hauekin batera, 1976ean -hau da, zabaldu zenean- eraikitako aldea birmoldatu, zegoen kanpoaldeko patioa barrualdeko aretoa bihurtuz.

Etorkizunerako beste solairu bat igotzeko asmoa momentuz behintzat bertan behera utzi beharko da, Aldundia ez bait dago horren alde. Berrikuntzak onartzen ditu, baina hiruzpalau urtetan ez du Egoitzaren handitzea komenigarri ikusten. Gainera, badirudi horrek masifikazioa sor dezakeela eta horrelakoak atzerapausua emateko arriskua dakar berarekin.

ITURRI ONETIK

Lorena Rodriguez

29 urte. Psikologa eta Giza eta Kultur arloko zuzpertzalea. Zorroagako Nagusien Egoitzan lanean. Zerbait Ikastaro eta Kongresuetan parte hartu du, baita ponentziak aurkeztu ere. Donostia-ko Uda Ikastaroetan, depresioari buruzko Ihardunaldietan ere izan da.



Ez al dira nagusiak arazo bat gizartearentzat? Zer neurri hartuko zenituzke zaharrak landare gisa ez daitezen bizi?

"Gizartea ez dago, ez diru mailan ez sozialki egoera honetarako prestatua. Pertsona batek produzitzen ez duenean ez du errentagarritasunik ematen. Baina, zer gertatzen da gizartea zaharrek markatzen dutenean? Erritmo desberdina behar dugula. Produktibitatea funtsezkoena denean, 65 urterekin amaitzen da istorioa. Aldaketa hau geureganatu begar dugu eta horretarako eskolatik hasita hezkuntza egitarauak beharrezkotzat jotzen ditut. Beste bizitzeko era bat, estereotipoak aldatu... Batez ere, gorputzean baino gizarte mailan ematen den fenomeno da dugu, edukitzea izatea baino gehiago baloratzen delako.

Neurriak hartzerako orduan, pasibitateari aurre egin eta astia nola eman, denbora libre betetzen jakin etabar eduki behar dira kontutan. Badira gure artean eskuhartzeen proiektu zabalak, batez ere giza eta kultur arloko dinamizazioak: hemen gorputzak jasaten duen galera ez dugu ahaztu behar ez eta buruarena ere. Alde horretatik ari dira lanean erakunde eta entitateak, batzuk enpresetan jubilariorako prestakuntza ikastaroak ematen dituztelarik. Bertan bakoitzaren buruestimatu bitu, parteharitze aktiboa eta kritika bultzatu eta ekintza ugari -elbarrituentzat ere bai- antolatzen dira. Suedian eta beste herri batzutan (arazoa larriagoa da) bestelako neurriak ere hartzen dituzte, belaunaldien arteko interbentzioak adibidez. Unibertsitateko ikasleek hilabete bat Egoitzan ematen dutelarik; hortik aurrera, parke eta lorategien garbiketa zaharren eskuetan utziz, etab. Hemen ere zuzentzen zaizkien aurrekontuetako diruek gehitzen doaz, baina beste aukerabide batzu eskeini behar zaizkie, ez kontutan hartu bakarrik botoa eskatzeko.

... eta gainera

- "Poxpolo" kultura dinamizazioa mintzo (2. orr.)
- Eibarren isun edo multa dexente (3. orr.)
- Kalamua Judo Taldea (4. orr.)
- Orazio Argarate abadeagai gaztearekin berbetan (6. orr.)
- Lucas Alberdirekin tertulixan (7. orr.)
- Gora Errepublikak (8. orr.)

Gaurko egoera San Andres Egoitzan

	Emakumezkoak	Gizonak	Guztira
	62	37	99
90 urtetik gora	10	2	12
80 " "	18	11	29
70 " "	24	13	37
70 " behera	10	10	20

BULEGO MATERIALA ETA ALTZARIAK

ETESA

KOMERTZIALA

Bidebarrieta, 66. 428 Postakutxa/ Tfnoa: 12 19 73 (Eibar)

NEURTEK S.A.

AMAITUTAKO SUPERFIZIEN KALITATEA KONTROLATZEKO TRESNAK

Txaltxa Zelai1. Tfnoa. 702079. Faxa: 700212 EIBAR

FIAT DEBA ALDEKO BANATZAILEA

Tfnoa. 12 10 00
12 10 19

HOGEL, S.A.

Bittor Sarasketa 7. **EIBAR**



Manu Agirre, Eibarko kalamua Judo taldearen erantzule eta nagusia da. 18 urterekin, judo egiten hasi zen lagun baten aholkuak jarraituz, eta orain 42 urterekin, elkargoaren lehendakaria da, baita, Judoko hezkuntza fisikoan lizentziatua ez ezik, judoko saiaketari nazionala da. Ez dira hor bukatzen,

Manu Agirrekin berbetan

gizon honek dituen titulu edo erantzukizunak. Estatu mailan nazioarteko epaile bakarra da munduko 'A' mailan, Epaile elkargoaren lehendakaria da, baita, Judoko Euskal Herriko federakundearena ere. Beraz, bizi oso bat kirol honi eskeinia.

Kalamua judo taldea

■ Trebetasuna eta bizkortasuna beharra

Japonian sortutako kirol hau, defentsa pertsonalaren barnean, zaharrenetarikoa da, hala ere gure herrira orain dela 20 urte heldu zen. Hiru urte beranduago kalamua judo Taldea sortu zen. Hemen, lau aktibitate ezberdin ematen dira: giharlana, karate, astinketa edo mantenuko gimnasia eta judoa. Guk bereziki, azken hau aztertuko dugu.

Judoan, indarra baino gehiago, trebetasuna eta bizkortasuna eduki behar da. Habilidada erabiliz, aurkakoa gainditzin datza kirol hau. Judoa, bizitzeko era bat da. Arte martzial hau ez dago besteari in egiteko pentsatua "epaileak, horretarako asmoa sumatzen badu, ekintza hoiak santzionatu egiten ditu" dio Manuk.

■ Adin guztietako partaideak

Kalamua taldean ehun pertsona inguru dihardute judoan, Surtetik, 40 urtetara arteko jendea dagoelarik. "Judoan hasteko adin egokiena 12 urtetakoa da, honela, 20 urterekin, judogia, guztiz formaturik egiten da" aipatzen du manu Agirrek.

Talde honetako partaideentzat, oso garrantzitsua da, judoan dauden mailak gainditzea. maila hoiak, "kyus"-ak deritazte eta kolore ezberdinetako

gerrikoz errepresentatzen dira. "Gerriko hauek kolore argienetik, zuritik, kolore ilunearaino doaz, beltzeraino alegia". Maila gorena hau eskuratzeko azterketa batzu atzean utzi behar dira. Baina gerriko beltza lortu ondoren beste hamar maila gainditzeko aukera dago. "Gradu hauek, "dan"-ak daitzen dira. lehenengo danetik bigarrena, bi urte asko igaro behar dira hamargarrena eskuratzeko" jarraitzen du bostgarren dana duen Manu Agirrek.

■ Prentsa gutxi

Kirol hau, presupostu handi bat edukitzeraz behartzen du, alde batetik, lokala mantentzeko eta bestetik, judogiak, txapelketara eramateko "Judoarekin gertatzen dena, zera da, ez daukala prentsa handiegirik eta honegatik, ez dago laguntzarik jasotzeko aukera handiegirik" esaten du Agirrek. "Esponsor falta dago, ez bait dago liga txapelketarik; lehiaketak urtean behin bakarrik ematen direlako. Honela beraz, ia ezinezkoa da diru laguntzak eskuratzeko". Udaletzeako patronatotik subentzio bat jasotzen dute, hala ere, kalamuak partaideek ordaintzen duten paguari esker aurrera ateratzen dira. "Gainera-baiezatzin du klaseak emateko, urte guztietan, 70.000 peseta ordaindu behar ditud".

Bi garagardo baso baten

Esquetan daukagu berriro ere baso berezi hau. Kanpokaldeko tragotoak gizarte mailan ematen diren gehiegikerien salaketarekin batera (Amazonia, Golkoko gerra, Intifada) iraultzarako deitzen duten zenbait

erizpide azaltzen digu.

Barrukoak, ordea, gure belarriak "zaintza" dator, botika ezberdinez jositik: hertzainak, Tapia eta Leturia, Global Warning... aukeran, azken finean

Antzerkia ume baten begietatik

Idoia Narbaiza 1974an jaioa. Ignazio Zuloaga Batxilergo institutuan egiten ditu ikasketak, (3.B.B.B.). Ikastolarako idazlanak egiten hasi zen bere idazterako joera hori. Orain dela bi urte, izan zen Narruzko zezen sarian bigarren postua lortu zuen, "Izan da, izango; izan da, izango" lanarekin. Bere ipuiak, eguneroko gertakari, paraboa

Eta Mirenen begiek alaitasun izpi batez jantzirik so egiten zioten bere amari, laket bait zuen ikuskizun hura...

Eta amaren eskua, esku leuna, esku hotza, bizibizian somatzen zuen Mirenen eskuak, bere gainean.

Aste-egun buru-zuri bat zen, eta Donostiako edozein kaletan, kale-antzerki bat ikustatzen ziarduten ama-alabak.

Arratsalde hotz lehor, Donostia itsasoaren haserrea erreflexatzen duen izpilu, zeru gris batek omituriko arratsalde.

Sei urtetako haur txikia, haur errugabea, haur zuria zen Miren. Bere begiek, poztasuna eta era berean, gure bizitza honen aurrean konfusioa azaltzen zuten, bi larrosa oraindik ireki gabe irudi.

Eduernea; ama; Mirenen ama; amatxo polita, amatxo maitea, 35 bat urteko emakume argal eta luxekia, makina bat "gizontxo" baino zati eder bat garaigao zen. Alperrik ordea neurriok, egun hartan bertan beroki berria lehen aldiz jasuten zuen Mirenen satizfazio sententzioaren aurrean.

Funtzioa hasia zen. Ez zen testu pisutsua antzezleek zerebilkitena, alderantziz, arina, eta gaitzat "Familia baten gora-beherak" zeuzkan lan hark, azpi-gai bat ere bazutela esan genezake, bizitzaren zorrotzitasuna edo...

Hamabost bat lagunek osotzen zuten jendeari aurre ematen zion talde hura; talde Euskalduna, talde langile...




lea. Baina beste lagun mordo batek atzean lan egin behar zuela begi bistan zegoen, ez bait zen edonolako txantxa prestakizun hura. Eta zihur aski, funtzioaren bukaeran, txapela pasako zuen haietako gazte batek, jendeak, gustatu zitzaientzen arabera borondateaz erantzungo zuen bitartean. Eta, Ez da bidezkoa!, Ez da bidezkoa!, Ez da bidezkoa, antzokian gustatu ez bazaizu ez ordain bat "gizontxo" baino zati eder bat garaigao zen. Alperrik ordea neurriok, egun hartan bertan beroki berria lehen aldiz jasuten zuen Mirenen satizfazio sententzioaren aurrean.

neska gazteak, neskatza politak, bere ero paperean erabili duen panderoa pasatzen du jendearen erantzun eskuazabala esperor.

Mirenen amak, inklinazio edo makurtze siñu bat eginenez, gaur egun dirugileak horrelako erokerietara iritxiak dira, eta, berrogei duroko txanpon xixtrin horietako bat, baina noski, hamar duroko txanpon zabal eta zapal batek baino gehiago balio duten horietako bat eskaintzen dio

antzzezleari, ordubete exkax atsegin horren ordainetan. Baina Mirenen eskerra, esker eskerragokoa bilakatzeko, ez da bidezkoa, antzokian gustatu ez bazaizu ez ordain bat "gizontxo" baino zati eder bat garaigao zen. Alperrik ordea neurriok, egun hartan bertan beroki berria lehen aldiz jasuten zuen Mirenen satizfazio sententzioaren aurrean.

Katiuskak



- Izenburua: Ultimas tardes con Teresa
- Idazlea: Juan Marsé
- Argitaletxea: Seix Barral
- Orrialdeak: 329

Guda osteko balaunaldiko mugimendu literarioan kokaturiko obra dugu oraingo hau. Juan Marsé da "Ultimas tardes con Teresa" obraren egilea. Bartzelonarra berau, ttikitandik lan era eta mota askotan aritu zen bizimodua aurrera etartzeko. Idazle honen ospea hemen aurkeztutako obra honekin etorri zitzaiola esan daiteke. Hala ere, baditu beste makina bat obra honetaz gain ipui, nobela eta errebistetarako artikuluetan sailkatutik: "Encerrados con un sólo juguete", "Si te dicen que caí" (zinemara eramandako obra)...

Idazle honen bereizgarri arginetariko bat, gaiak errealtatean lortzen duten oinarria da. Bere obratan ageri diren elementu guztiek, inguruarekin ertziki lotuak ageri dira (giza-mailak, bizimodu erak, gizarteko oztipoak...), honela obra irakurleagandik, nolabait esateko, urbilago kokatuz.

Giza maila ezberdinetako bi gaztearen arteko maitasun istorioa kondatzen digu liburu honek. Status-maila ezberdin hau izango da liburu osoan zehar une oro agertuko zai digun elementu latza, bi gazte hauen arteko erlazioa moztuko duen guraiza zorrotza.

Manolak, Bartzelonako auzo baxu batetan bizi den gaztea, Maruja ezagutuko du, aberats batzuek antolatutako festa batean. Bien artean, harreman berezi batzu hasiko dituzte. Baina Manolak (Pijoaparte gaitzizenez ezagutua baita) duen nahia, ez da maitasun helburuzkoa, bere buruan jira-biraka darabilen ametsaren betetzea baizik. Giza-maila altuko partaide bihurtzea nahi du eta aberats batekin ibiltzeko berau posibilitatuko lioke, hala ere, harremana aurrera dihoan einean,



Optika Txurruka

Optika montatzeko laguntza asko izan zituen, zeren Adelak ordutan hogeita hiru urte zituen, eta hogeita bost urterarte gobernuak subentzio asko ematen ditu. Baita ere Sagazdera jo zuen eta azkenik gestoria batek asesoratu zuen, hau da negozioaren proiektu bat egin, eta bere optika propioa du orain.

"Nik bakarrik bista graduatzen dut, ezin nahiz medikuntza barnean dago. "Optika asko daude Eibarren. Beste optika bat gehiago jarri nuenen, hasieran beldurra ematen zidan. Gainera hasieran lagunak etortzen dira eta ezaguna egin behar zara jende asko ez da kontzientziatu begiak hainbeste zaindu behar direnik. Eguzkitako betaurrekoak ere saltzen ditu baina berak dioen bezela, "eguzkitako betaurrekoak, eguzkia egiten duenean bakarrik saltzen dira".

Lentilak oso garrantzitsuak dira optika mailan. Lehen betaurrekoak jartzeko aukera zegoen, orain lente txiki batzuk ditugu. Lentilak ez dira hain berria nabaritzen eta eramaten dituen pertsonak erosoago darabiltzaten bidez. Baina geroa begira hori da espero dudana" diosku Adelak amaiera gisa aparteko hauek oso garestiak dira, nahiz eta

Eibarren norbaitek eraman.

Bezeria desberdina da. "Era guztietako jendea dator optikara", Jende gaztea pertsona nagusiak..... "hamabi urtetik gora graduatzen dut bista, Norbait txikiagoa baldin badator, okulistarengana bidaltzen dut. Jende gazteak lentilak eskatzen ditu, aldiz pertsona nagusiak betaurrekoak eskatzen dituzte".

Eibar mailan konpetentzia handia dago. "Optika asko daude Eibarren. Beste optika bat gehiago jarri nuenen, hasieran beldurra ematen zidan. Gainera hasieran lagunak etortzen dira eta ezaguna egin behar zara jende asko ez da kontzientziatu begiak hainbeste zaindu behar direnik. Eguzkitako betaurrekoak ere saltzen ditu baina berak dioen bezela, "eguzkitako betaurrekoak, eguzkia egiten duenean bakarrik saltzen dira".

Alboko herrietako jende asko dator optikara. Eibarko jendez aparte, Elgoibar, Markina, Plentzia eta Bergararik jende asko dator" Adela oso pozik dago bere optikarekin. "Negozioa martxan dago eta datozen urteak onak espero ditut; urte terdi hau bezalakoa onak izatea. "Negozioa pagatzen amaitu behar dut eta geroa begira hori da espero dudana" diosku Adelak amaiera gisa aparteko hauek oso garestiak dira, nahiz eta

FIRIN FARAN

BEKAK

■ Atzerriko unibertsitate eta ikerketa zentruetan ekonomia eta komunitateko zuzenbideari buruzko ikasketak sakontzeko bekak

Ramon Areces Fundazioak egiten du dei. Eskatzaileak lizentziatuak izan behar dute. Europako KOMunitateari buruzko Ekonomia eta Zuzenbidea dira gaiak. 1500 hilero, matrikula eta joan etorrirako bidaia egiteko ere emango da. Bederatzi hilabeteko iraupena izango du. 1991.eko Apirilaren 16ra arte eskatzeko epea duzue.

■ Zientzi eta teknikaren inbestigazioa. Alemaniako Errepublikak Federaletako Hezkuntza eta Zientzia Ministeriartzak egiten du dei. Inbestigatzaileak eta unibertsitateko irakasleak dira eskatzaileak. 1992.erao Alemaniako Errepublikara

Federalak eta Espainiaren arteko ekintza integratuen programan parte hartzeko da laguntza hau. Epea 1991.eko Apirilaren 30ean amaitzen da. Informazio gehiago nahi izan ezker, hemen duzue telefono hau: (91) 2615400.

Lehiaketak

■ "COMIC-91" izeneko komik lehiaketa. Eibarko OMIC, hau da, kontsumitzaileak informatzeko erakundeak, antolatzen du. Eibar hiriko edonork parte har lezake. Lana kontsumoaren arloari dagokion gai batean zentratua egon behar da. 6 sari banatuko dira hurrengo banaketaren arabera:

a) 14 urtetatik beherako parte hartzaileak:
1. saria: 50.000 ptako baliokidea.
2. saria: 25.000 ptako baliokidea.
3. saria: 15.000 ptako baliokidea.

b) 14 urtetatik gorako parte hartzaileak:
1. saria: 100.000 ptako baliokidea.
2. saria: 50.000 ptako baliokidea.
3. saria: 25.000 ptako baliokidea.

1991.eko Apirilaren 5eko 12etan amaitzen da lana aurkezteko epea. Lanak orijinalak izan behar dute. Parte hartzaile bakoitzetik lan bat bakarrik onartu da. Eta orijinalak 18 x 24 zmtako neurria izango dute, bai bertikalak edo bai formato profesionalean.

3 ejenplar entregatu beharko dira, sinatu gabe, lema edo titulu batez, eta datu pertsonalak eta bere ikasketak egiten duen zentruaren izena jarri beharko da sari batean. Emaitzak 1991.eko Apirilaren 11n aterako dira, 6.30etan, Udaletxean. Eskolei sari berezi bat emango zaie.

■ Pasaia- Gazteria komiki lehiaketa. Pasaiaiko Udaletzeko Gazteri Sailak antolatzen du. Partaideak 15 eta 25 urte bitarteko gazte guztiak

izan daitezke. Gaia librea da. Pasaiaiko Udaletxean duzue argibide gehiago.

■ Deportibitateari sariak. Zientzi eta Hezkuntza Ministeriartzak egiten du dei. Eskola adineko taldeak eta kirolariak parte har lezake. Gaia eskolako kirola da. Trofeo eta diploma emango dira. 1991.eko Ekainaren 5era arte baldututa dago epea.

■ San Juan de la Cruz poesia. Ubedako Udaletxeak antolatu du. Edonork parte har lezake. Gaia San Juan de la Cruz da. Lehengo saria 200.000 pta. eta bigarrena 50.000 pta izango dira. 1991.eko Apirilaren 30.ean amaitzen da epea. Informazioa Ubedako Udaletxean aurkitu duzue.

■ "Nafarroako jaialdiak" kartel lehiaketa. Nafarroako Gobernuaren Hizkuntza, kultura eta Kirol Sailak

egiten du dei. Kartelen tamainua 70 x 100 zmkoka baino gehiago ezin da izan. Testu hau jartzeko beharrezkoa da: "Festivales de Navarra-Nafarroako Jaialdiak Agosto-91"

Parte hartzaile bakoitzak ez ditu bi obra baino gehiago aurkeztu behar. Lanak 1991.eko Maiatzak 15 eta 20a bitartean eman behar dira, ostegunez, 9 eta 14 orduak bitartean. 350.000 pezetako saria dago.

Sariketa hutsik deklaratu ahal da. Helbidea, izena, deiturak eta karteak izan dezaketen salmenta-prezioa jarri behar da. Epaia 1991.eko Maiatzaren 31ean emango da. Lanak helbide honetara bidaltzeko izan behar dira: kultur Zuzendaritza Orokorra "Vianako Printzea Erakundean", Antsoleago kalea 10, Iruña.

izango da. Argazkiak orijinalak izan behar dira. Lehiakide bakoitzak 4 argazki bidali behar ditu. Argazkien tamainua libre da, baina kartoiak 30 x 40 zmkoka izan behar du. Lan aukeratuekin Almansako Udaletxean erakusketak bat antolatuko da. Lehengo saria 20.000 pta, bigarrena 15.000 eta trofeo izango dira. Epea 1991.eko Apirilak 19an amaituko da.

■ Zumarragako III komiki lehiaketa. Zumarragako Udaleko Kultura eta Gazteri Bartzordeak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatzen dute. Komikian berriak diren egile guztiak har dezakete parte. Lanak libreak eta zuribeltzean izan behar dira. Lanen luzera 2 edo 4 orrialdekoa eta zabalera DIN-A 3rena izango da. (29,7 x 42).

Lanak sinadurarik gabeko kartazal batetan aurkeztuko dira, izenburu baten pean, eta barnean, kanporaldean lanaren izenburua idatzirik izango

duen beste kartazal batetan, egilearen datu pertsonalak; lanen aurkezpena banaka edo binaka egin daiteke, hau da, gidoiak eta marrazkilarien artean. Sariak hauek dira:

1. saria: 60.000 pzatakoa
2. saria: 40.000 pzatakoa

Lan guztien erakusketak bat egingo da. 1991.eko Apirilaren 13an amaitzen da bidaltzeko epea. Lanak Zumarragako Udaletxera postaz bidali behar dira.

Ikastaroak

■ Belauntzi-ikastaroak

Ikastaro hau 17tik 25 urte duten adineko gaiteentzat, 25 orduko praktika eta asteburuko teoria emango dira. Klaseak Estatu 50 eskoletan emango dira. Informazio gehiago nahi izan ezker R.C.N. Donostiara deitu. Prezioa 9.640 pta.

ASCURAIN ASEGURROAK

"Real Automovil Club Vasco Navarro"are Ordezkaritza

Bidebarrieta, 4 - 1 EIBAR Tfnoa. 11 37 13 - 70 28 87 Fax: 70 28 87

AM Dena etxe barrurako

Horman sartutako armairuak Futoi aldagarriak, Tatamiak...

Bista Eder, 3 Tel.: 118899 Eibar

Kili Kili

Gosariak

Plater hobinetuak

Gosariak

Itasbaitzak *Tfnoa. 11 26 01*

ASCASIBAR KIROLAK

INTERSPORT

Calbetón, 12 EIBAR Tfnoa. 11 28 52

umea

Umeen eta gazteen arropak

Errebal, 16 tfnoa. 113164 EIBAR

Zagora Hizkuntzen liburutegia

Arragueta, 7 Tfnoa. 12 72 21

E i b a r

BOSSA

Garagardotegia BURGUER Gosariak

Gioizeko 9etarik aurrera zabalik

EGO GAIN Kalea z/g (Arrate Hotelaren ondoan) EIBAR

Kultur
dinamizatzaile
berria



Ermuan jaio eta han bizi da. 26 urte badaramatza berarekin. Ile luzeaz munduan ibilia, moztu zuenetik Jose Luis Gonzalez Blanco, "Poxpolo" bilakatu zen. Ezizen guztiz onartua. 15 urte zituenetik gizarte mailako ekintzetan murgildua: Institutoan, Jaietarako komisioak, Antzerki Tailerra... Herriz-Herri kanpainaren barruan 6 hilabetez lan egin zuen Bizkaiko Aldundian, zezpertzaila bezala. Altzan, berriz, 3 urte Casares Kultur-Etxean zuzendari gisa.

Poxpolo: "Eibarren hiritartasuna sortu behar dugu"

Udaletxean daramazun hilabete t'erdi honetan, zer izan da gehien arritu zaituena?

Bi flash edo azpimarratuko nituzke. Alde batetik, gauza asko egiten direla baina kalean hori ez dela somatzen. Ez dakit zergatik izango den baina horrela da. Eta bestalde, eskuhartze edo partizipazioarena aipatuko nuke. Baliteke izatea jendeak ez dakielako edo nahi ez duelako. Hasiera baten behintzat irekirik gaude edozeini.

Altza bezalako herri batetik Eibarko kultur mundura salto egitean, zer desberdintasunekin egiten dugu topo?

Alde handiena esparru fisikoan ematen da. Altzan, adibidez, egun

guztian bizitzen genituen auzotar eta taldeekiko harremanak. Honek informazioa ematen zigun, jendeen gustoei buruzkoa, eta hilabetero egitaraua prestatzeko aukera. Han gure atzetik eta gurekin lanean ziharduten taldeek. Gutxi gora-behera %70 heritarren proposamenak ziren eta % beste 30ak kultur ekintzak. Portzentaia hau egokia deritzot. Herretarako bideak sortu behar dira, jendeak Kultura Saila non dagoen jakin dezan eta Udaletxea bunker modura hartua ez izateko.

Aurrerantzean izango dituzun lanetarako, zeintzu dira zure ideiak?

Oinarrizkoenak hilabetero ekintza egitaraua prestatzea eta jendeari gure lana zabaltzea izango lirateke.

Dena den, kontutan hartu behar da ezaguera fasean nagoela oraindik eta iraila arte ez dut ezer berririk planteiatuko; batez ere, saiaturko gara dagoena hobetzen. Bestalde azpiegiturazko arazoak konponduz gero, Eibar interesgarria da oso.

Kultur-Etxe baten betebeharrak hiritartasuna biztea da, jendeak lana egin dezala herria hobetzeko. Bestela kultur-ekintzen merkaturan eror gintezke.

Ideen artean, ikastaro eta tailleren gehitzeari garrantzi handia ematen diet. Gustatuko litzaidake batek Arzak-en sukaldaritza burozko ikastaroa eskatzea, beste batek beste zeozero eskainia eta horrela.

Apirilean gozatu behar ditugunak

IRAKURTZEKO:

"LIBURU ARTEAN"

Kanpaina hau, Kultur Sailak antolatutik, Astixa (Kultur Zerbitzurako Eibarko enpresa berria) eta Peio Añorgak (ipuin irakurtzailea) eramango dute aurrera.

Zergatik Apirilean: 2an Haur Liburuaren Nazioarteko Eguna eta 23an Liburuaren Nazioarteko Eguna direlako.

Noiz eta non

Astixa
(Untzaga plazan, 5tik 7ra)

3- asteazkena
4- osteguna
5- ostirala
13- larunbata
20- larunbata
27- larunbata

Peio Añorga

(OHO Eskoletan)

15- astelena
16- asteartea
17- asteazkena
22- astelena
23- asteartea

ENTZUTEKO:

"LOS SENCILLOS"

Talde honek 4 urte badarama musika munduan. Heuren lehen izena: "Aullidos en el garaje". kataluniarak. Diskoa aurkeztzen dute Euskadin. %100 izenak adierazten diguna, beste hainbeste dibertituak. Pop-rock, baita ere rhythm and blues. Rolling Stonesen bertsioak. Beti amaitzen dute "La vida es una tómbola" rekin.

Noiz eta non

20an, Polikiroldegian. Gaueko 10'30etan.

Sarrera: Aurrez - 600
Bertan - 700

Sariketa

Ba al dakizu non dagoen argazkian agertzen den irudia? Beno hori hala bada eta AYERBE LIBURUDENDAK oparitutako duen liburua irabazi nahi baduzu bidali ezazu eskutitz bat (pertsonako bat onartuko da bakarrik) helbide honetara zeure datuak eta telefonoa emanez!

EIBARKO UDALA - EUSKARA ZERBITZUA
...Eta Kitto Sariketa"

24. Aleko Sariketaren erantzuna "Urkiko Eroski-ren pasaia edo bidea" zen. SARITUA: Maria Iriondo Alcelay, Urki kalena bizi dena. Hurrengo Sariketarako Apirilaren 15a baino lehen bidali behar dira erantzunak. SORTE ON!!!

LIBURU SALDUENAK MARTXOAN

EUSKARAZ

Sasiak ere begiak badituk
• Aingeru Epalza
Hamaseigarrenean aidanez
• A. Lertxundi
Haur besoetakoa • Jon Mirande
Babilonia • J.M. Irigoien

ERDERAZ

Como ser mujer y no morir en el intento • C. Rico-Godoy
Brazo fuerte • Vazquez-Figeroa
El pozo de los mil demonios
• Andreu Martin
El laberinto griego • Vazquez- Montalban

LA VOZ DEL DEBA



LA MUERTE DEL CARNAVAL

El carnaval de Eibar, que se celebra el primer fin de semana de febrero, es uno de los más importantes de la zona. Este año, el carnaval ha sido especialmente interesante por la participación de muchos grupos y por la calidad de los actos. El desfile por las calles de Eibar es una tradición que atrae a muchos visitantes. Los actos incluyen música, baile y teatro. El carnaval de Eibar es un momento de alegría y de convivencia para todos los eibarritarros.

Oihartzunak ondorioa duenean

Ez dakigu zenbatgarren zenbakia den, ez du jartzen eta, baina gure eskuetara heldu da.

Egia esan, duela pare bat hilabete egin genion kritika nahiko gogorra izan zen. Ez dakigu entzun digutene edo baina hasierako jokabide linguistikoa eta baita tematikoa ere aldatu detela ez dago dudarik.

Alde batetik, eta hizkuntz-tratuerari dagokionez, badira hiru artikulua euskaraz: Zuloagaren Frantzia aldeko gorabeherak, astezkenetako azokaren leku-aldaketza, eta "Bariantea barietate barik" titulua daraman artikulua. Bestetik, gaien gainean esan beharra dago "La Boz del Deba" deitzen den arren gai gehienak Eibarkoak eta eskualdez kanpokoak direla, bi txikitxo izan ezik. Publizitateaz ere beste horren beste esan genezake.

Guzti horrekin ez da juzgatu nahi produktuaren deskripzioa egin baino.

Pozgarria da, gutxienez, trataera linguistikoa aldatu izatea, horrek sentsibilitate egokia adierazten du eta.

IRAKURLEAREN TXOKOA

Nire kalea dena hankaz gora dago. Dena lokatzaz eta zementuz beteta, egurrak eta burdinak edonon. Goizeko zortziretan hasten dira lanean eta ez dute arratsaldeko bostak arte bukatzen. Konpoka lanak egiten ari omen dira, eta dena zulatu dute gero poli-polita ipintzeko. Nire amak esaten du hori herriaren onerako dela, ez dela inporta zapatak zikintzea, eta gu orain oso gustora egon ez arren, obrak bukatzean auzoa zoragarria geldituko dela, hogeitabost urtetan ez dutela inolako konponketarik egin, eta bazela garaia. Ni ez naiz hain zaharra, baina, egia esan, beti berdin ezagutu izan dut auzoa, txikia nitzenean eta orain berdin-berdin dago. Nire aita txok, berriz, obra horiek politikoen kontua direla dio. Maiatzean ez dakit zer diren politikoa, ez dut politikorik ezagutzen, baina aita esaten duenez asko hitzegiten duten pertsonak dira, -nik- uste nuen horrelakoei berriutsu deitzen zitzaizela-, ez dute ezer egiten, eta gezurak barra-barra esaten dituzte. Aitak esaten duena egia bada -eta seguraski egia izango da, aitak asko dakielakoa- niri oso gaizki iruditzen zait hainbeste urtetan ezer-egin gabe egon eta gero maitzean gauza hori egon behar delako lanean hastea, zeren horrek esan nahi du, ez direla gutaz gogoratu gure beharra dutela konturatu diren arte, eta hori oso txarto dago. Ni ere, gabonetan eta nire urtebetetze egunean, opariak hartu behar ditudanean bakarrik gogoratzen naiz zintzoa izateaz, eta nire amak esaten duenez hori ez badago batere ondo, politikoei egiten dutena ere ez da zuzena, ezta?

Amañakoa

ZORIONAK ZURI




"...eta Kitto" ren banaketa-arduraduna den Begoña Bilbatua ez da onezkero andereño, bere bihotzeko azukre koxkorrekin, Romanekin, uztartu zaigu eta. Zorionak zuei!

Udaberriaren etorrerarekin batera hartu duzuen erabakia, Udaberria bera bezain argi, koloretu, kimutsu, alai eta onuragarria gerta dakizuela, aurrerantzean ibili beharreko bidea.

Ondo pasa opor egunok eta badakizu...ez etsi, nahiari eutsi.

eustaKitto





Hill Street blues

Orain dela gutxi plazaratutako txosten bat arabera, gure herrian polizia bat dugu 70 eibartarrentzako. Proporzio hau erakunde polizia guztiak zenbatzen baditugu ateratzen da, hots, Udaltzaingoa, Ertzantza, Gurdia Zibila, Polizia Nazionala eta CSPa, besteak beste. Ez da proporzio makala, ez horixe. Itxuraz, legedia errespetatzeko bideak sendo erroturik daude gure herrian.

Egia esateko, Eibarko herriaren ezaugarrien artean dentsitate izugarriarena dago: jende gehiegi bizi gara txoko txiki batean. Bizitzen dugun despiege polizia honek ematen duenez, gure agintari maiteak gure herriari dagokion politika poliziala antolatuta dute. Horrela, hiritarrak pilotuta bizi baldin bagara gure "zulotxo" honetan, indar polizial ezberdinak jartzen dituzte bata bestearen ondoan. Agian elkar zaintzen, edo.

Dena den, gauzak ez dira bere onetara ateratu. Zutabe honetan maiz aipatu baldin badugu Eibarren espiritu aurrerakoi eta pioneroa, arlo honetan atzetik goazela aitoru behar dugu. Gasteiz, gure herrian ditugun indar polizialek aparte, baita polizi foralak ere badiutze. Zerbait egin beharko luke Eibarko Udalak gure herriak, arlo honetan ere, dagokion lehen tokia eskuratzeko. Interpol deitu, "Pinkerton" agentziaren sukursala bat jarri, edota, zergatik ez, Tintinen komikietan egertzen ziren "Hernández & Fernández" xelebre haiek fitxatu. Imajinarioa erabili beharko dugu Gasteizko marka hausteko.

Horrenbeste indar polizial edukitzeak baditu, nola ez ba, bere alde onak. Esate baterako, txandako lana. Sistema horrekin, Ertzantzak astelehenetako arazoez arduratuko litzateke, Guardia Zibilak astearteke, Udaltzaingoa asteazkeneke eta horrela lan egunak bete arte. Asteburuetan, farmaziak bezala gurdian, eta hitz hau inoiz baina guberto erabili dezakegu, dagoen indarrak beteko litzuzke polizi zereginak. Polizi sindikatuek, behintzat, pozik hartuko dute gure proposamen hau.

Alde positiboak jorratzen jarraituz, gauza bat argi agertzen zaigu: indar guzti hauek polifuntzionalak dira (ez dute seguritasun indarrekiko mespretxu izpirik). Bai, guztiak dira gai poliziari dagokion lana betetzeko, bai multaz josteko automobilaista gaixoak, baita langile manifestapen bat makilkadaz desegiteko. Dena den, nik ez dakit hainbeste gizon armaturen presentziak zorioneko "la madre de todas las batallas" ekarriko badu gure herrira, baina GACko langile batek, Ertzantzaren pilotakada bat ankartean jaso eta gero, esandakoa gogoan dut bederen: "la madre que les parió..."

Eibarren, urtero, 6.000 multa inguru jartzen dira aparkaleku arazoengatik

Eibar, goizeko hamarrek, erdialdeko kale batean. Zenbait bezero kafe bat hartzen ari dira taberna batean. Bapatean, gizon batek bere burua agertzen du tabernaren atetik: "kontuz gero, kale hontako kotxeak multatzen hasi dira-ta". Zitzu bizian, hiruzpalau kafehartzaile, heuren berrikerak utziz, arrapaladan kaleratzen dira multatik libratzeko asmoz. "Gerrilla" hau egunero gertatzen da gure herrian, batez ere erdialdeko kaleetan.


Udaltzaingoko kideek asuniturik dute "ezkutuetako" joku hau "askotan parregarria izaten da. Kotxe bat multatzen ari garen bitartean, beste askok ospe egiten dute, maiz berriro leku berera bueltatzeko". Dena den, Udaltzainburu den José Miguel Callerrentzat, herriko trafikua ito eta hondatzen dutenen "listoen" zigorra hiritarren beharrekiko tolerantziarekin nahastu behar da.

"Bestela, benetan legedia gogor aplikatu ezker, Eibarko hainbat komertzio eta enpresari izugarrizko kaltea egingo genioke. Hala eta guztiz ere, zoritxarrez, batzutan injustizia izaten dira, baina guk soilik legedia aplikatzen dugu, ez da gure asmakizuna", aitortzen du.

■ 30 multa egunero

Gure herriko gunerik beltzenak, multen arloan, Erdialdea eta inguruko auzoak dira. Erdialdea goiz parte eta txikiteoaren orduan, eta auzoak gauean. Guztira, lan egunetan, 30 multa inguru jartzen dira Eibarren. Asteburuetan berriz, beti Udaltzaingoa esanetan, askoz gutxiago izaten dira, ajenteak eskuzabalagoak izaten direlako.

Proiektzio bat eginez, hileroko 500 multa eta urteroko 6.000 izun suertatzen dira. Ez da kopuru makala beste herrietako portzentaiekin konparaturik; dena den, Eibarko Udaltzaingoa erantzutako gutxi dira.



"Batziek ezkutuetako joku bat bezala ikusten badute ere, aparkatzeko lekuen arazoak guztiz premiazkoa da gure herrian", dio José Miguel Callek, Eibarko Udaltzaingoa buruak. Horrenbeste txutxumutxu sortzen dituzten infrakzioak zigortzeko, urteroko sei mila multa inguru jartzen dira, nahiz eta

Udaltzainburuaren ustetan "egurra" ez izan akats hau konpontzeko biderik egokiena. Nahiz eta azken boladan Ertzantza multak jartzen hasi, eta gogorak gainera, Eibarko Udaltzaingoa ez du honen daturik jaso

"Gure herriak sufritzen dituen aparkatzeko arazoak kontutan izanik ez dira gehiegi, ezta gutxiago ere. legedia zehatz-mehatz kunplutuko bagenu askoz gehiago izango ziren, baina flexibilitate bat agertu

Udaltzainburuak heziketa biala bultzatu nahi luke, zigorrak baino

behar dugu".

Hala eta guztiz ere, José Miguel Callerrentzat aparkatzeko problema ez da hain larria. "Ni egunero etortzen naiz Gasteizetik lanera, eta beti topatzen dut aparkatzeko tokia, nahiz eta erreserbatutako lekuri ez eduki. Jende asko erosoegia da eta Erdialde bertan gunerik aurkitzen ez badu inon ez dagoela dio".

■ Heziketa indartzeko beharra

Gaur egun kobratzen ari diren multak, batzutan 15.000 pezeta baino gehiagokoak, ez dira edozer gauza inongo patrikarako. "Bai, gehiegi direla deritzot, baina legea horrela jarrita dago", dio Eibarko udaltzain buruak. "Gainera, orain multa guztiak Trafikora, hots, Eusko Jaurlaritzara bidaliak izaten dira eta horrek zigorraren kopuru



monetarioa gehituko du".

José Miguel Calleren ustez autoritateen iharduera guztia zigorraren bidez doa, heziketaren hildoa baztertuz. Udaltzainburua ez dator bat jarrera honekin: "soilik multak jar-

tzea ez da arazo hau konpontzeko bidea. Nere ustez, hiritarren heziketa biala sakondu behar da, guztiok errespetatu behar ditugun arau batzuk daudela jakinarazteko jendea. "Egurra" infraktore menderakaitzentzat gorde beharko lukete. Beharrak ongi argitu ezker, jendeak primeran ulertzen ditu eta ezinobe erantzun ere bai".

Eritzi honen adibide bezala San Juaneko jaiak jartzen ditu. "Baldin eta eskatu publikoki kotxeak ez jartzea herriko erdialdean, jendeak oso ondo hartzen du eta beste lekutan kokatzen ditu kotxeak enbarazo egin ez dezaten". Hiritarren heziketa hau bueltatzeko asmoz, Eibarko Udaltzaingoa, bere kabuz, edukazio bialari zuzendutako lau bideo filmatu ditu, gure herriko haur guztiek ikusteko. "Guk dakigunez, esperientzia honetan pionero izan gara, Estatu mailan behintzat".

■ Ertzantzaren sarrera

Eibarko Udaltzainburuak daturik ez duela esaten badu ere, Ertzantza hasia da aparkaleku multen mundu honetan murgiltzen. Bere sarrera ez da nolanahikoa izan, adibide bat jartzeko, San Juan kalean, bigarren hilaran aparkatzeagatik, 16.000 pezeta multa jarriak dira. Eibarko hainbat gidarik ez dute begi onez hartu berrikuntza hau: "gure herrian dauzkagun prolemekin, guztiok bata-bestearen gainean pilaturik, lekuri gabe, eta horrelako multak jartzea pasada bat dela uste dut. Non jarriko ditugu ba kotxeak?", dio haserre bizian multa bat jaso berri duen eibartar batek. "Heurek ez dute edukiko aparkatzeko problemarik, horrelako komisia dotorea izanik, baina guk zer?", esaten du beste batek sutsuki.

Gidarien amorruak alde batera utziz, Ertzantzaren sarrerak egoera gogortuko duela argi dago, multa guztiak Trafikoko bidea hartuko dutelako. Agian, denbora aurreratu ahala, bere jarrera flexibilitatutako da, Udaltzaingoa bezala, herriaren beharretara egokituz. Dena den, Eibarren desastre urbanistikoa kontutan izanik, gure herriak multen "koto" ezinobe jarraituko du izaten uniformedun ehiztarientzako.

Alfredo ELORZA
ORTOPEDIA

TRATAMENDU EGOKIAK

ZEZENBIDE, 6 (EIBAR)

Tfnoa: 11 00 70

S.C.R. ARRATE

Goizeko 7,30etatik zabalik
Pintxo eta tragu xarmantak

Etor hadi
"KULTURALERA"

MUEBLES
VICTOR

Urte Behe. 23

E.I.B.A.R.

Azua. 70 09 39



Oracio Argarate

Askotan aipatzen eta komentatzen dugu Elizak jasaten ari duen jende gazte eta berriaren falta edo urritasuna behintzat. Begibistakoa baldin bada gero eta gazte gutxiagok erabakitzen dutela abade izatea, oraindik badago bide hau aukeratzeko duenik. Oracio Argarate 25 urtetako eibartarra dugu eta zenbait urte darama Donostian Teologia ikasketak burutzen. Oraciok "Eta kitto"-ri eskeinitako elkarrizketan berak aukeratu duen lanbide eta bizimodua eta hautaketa honen arrazoiak ere azaltzen dizkigu.

"Bizitza ideal bati lotzearren erabaki nuen apaiz izatea"

Eta Kitto.— Noiz hasi zinen mundu honetan, Elizaren munduan hain zuzen ere?

Oracio.— Aspaldian hasi nintzen. 8 urte besterik ez nituela Ipuruko San Pio X Parrokian egon nintzen monagillo bezala. Hala ere, Abade izateko erabakia 18 urte ingurukin hartu nuen. Tarte horretan hainbat lanetan hartu nuen parte, konfirmazio taldeetan e.a., baina erabakia, esan bazala, 18 urtekin hartu nuen.

Eta Kitto.— Zenbat urte daramazu Abade ikasketak egiten?

Oracio.— Karrerako 7 urte dira COU bukatu ondoren. Nik prozesua piskatxo bat luzatu egin dut zeren atera nintzen momentu batean hemen, Eibarren, lanean egoteko. Momentu honetan 4. kurtsoan nago eta bitartean Obispaduan lan egiten dut. Gazte arloan pertsonala behar zuten Parrokietan talde jarai-pena egiteko. Beraz, goizean hortara dedikatzen naiz eta arratsaldean ikastera eta klaseetara joaten naiz. Hala ere, oso jende gutxi gaudenez, klase asko tutoria bezala egiten dugu, hau da, ni irakasleengana joaten naiz eta beraiekin prestatzen ditut ikasi behar ditudan gaiak. Usurbilen bizi naiz oraintxe. Hamairu seminarista ari gara ikasten. Gutxi gaudenez batzuk Seminarioan bertan daude eta azkenengo urteetan gaudenok Parrokietan bizitzen ari gara.

Eta Kitto.— Apaizgintza ikasketak bukatu ondoren agian Eibarren jardutea gustatuko litzazuke?

Oracio.— Hori ez da gure eskutik. Gotzaiak erabakitzen du nora

joan behar zaren. Beraz, Gipuzkoan bertan edozein lekutara joatea posible da. Leku oso ezberdinak dira: ez da berdina Eibarren, kostan ala Goierri izatea, jendea eta bizimodua ezberdinak baitira. Baina leku batean ala bestean burutu behar duzun lana azken finean

■ **Etxean seguraski nahiago zuten beste gauza bat izatea baina gero ohitu egin dira. Lagunen artean oso ondo hartu naute. Gainera kuadrilla batetan apaiz bat egotea ez da eguneroko gauza, nahiko originala da**

berdina edo berdintsua da. Eibarren egoteak alde batetik gauza onak baditu herria eta ohiturak ezagutzen ditudalako. Baina, bestalde, jendearen artean jadanik irudi bat ere badaukazu eta ezin duzu pertsona horiengan modu errazera ailegatu, oztupoak badituzu. Beste lekuetan, aldiz, guztiz ezezaguna zara eta edozein modutan aukera gehiago daukazu jendearekin harremanak estutzeko.

Eta Kitto.— Zergatik aukeratu duzu bizimodu eta laburbilduz lanbide hau Oracio?

Oracio.— Azken finean bizitza ideal bati lotzeko. Nik uste dut idealak edukitzea eta mantentzea gauza ona dela. Idealak asko daude mundu honetan eta niri Kristautasunaren baitan dauden idealak gustatu zaizkit. Horren

barruan, orainarte gure herrietan apaizak zuzpertzaila izan dira. Eibar bezalako herrietan gaur egun hau ez da gertatzen baina beste herri batzutan oraindik hala da.

Eta Kitto.— Zeure inguruko jendeak, familia eta lagunak nola hartu dute apaiza izateko erabaki hau?

Oracio.— Egia esan ez zuten hartu sorpresa handirik, betidanik holako lanetan oso sartuta egon naizelako. Etxean seguraski nahiago zuten beste gauza bat izatea baina gero ohitu egin dira. Lagunen artean oso ondo hartu naute. Gainera kuadrilla batetan apaiz bat egotea ez da eguneroko gauza, nahiko originala da.

Eta Kitto.— Asteburuetan Eibarrera etortzen zara?

Oracio.— Lehen, Seminarioan nengoenean sarritan etortzen nintzen, asteburuero; baina orain Usurbilen nagoenez hango jendearekin erlazioak estutzen eta hango martxan sartzen, ia 3 hilabetetan behin etortzen banaiz ondo dago.

Eta Kitto.— Lehen aipatu diguzu konfirmazio taldeetan lan egiten izan zarela. Zeu ere gaztea izanik agian gustokoagoa litzazuke jende gaztearen artean aritzea?

Oracio.— Dударik ez, azken finean geure pentsamoldeak berdintuagoak baitira. Baina bestaldetik, eta nik uste dut asko galdu dugula horretan, zaharrek eta helduekin harramanak izatea oso interesagarria iruditzen zait geure historia eta ohiturak ezagutzeko. Baina bizitzaren poztasuna pixka bat bizitzeko hobe gazteekin eta gazteen martxan bizitzea.

... eta kittok! Gomendaturik



S
U

T
A
G
A
R

Jaiotze basatia; s.t.g. ren lehen diskoaren islada

Jakingo duzuen bezala, atera berria da SU TA GAR eibartar talde heavy euskaldun honen lehenbiziko diska. Bere izenburua JAIOTZE, BASATIA da eta zihur dagoeneko entzun duzuela.

Beraien azken maketa 89ko Abuztuan grabatu ondoren, urtebete igaro da IZ grabaketa estudioa sartu direnerarte. Grabaketak Azaroan burutu arren, Martxorarte itxaron behar izan dute fabrikazioa dela eta (plastikoa, portada etabar) baina egun, edozein dendatan edo tabernaren baten aurkitu dezakezue.

JAIOTZE BASATIA hamar abestiz osaturik dago beraietariko bat instrumentala delarik. Hau da diskoari izenburua emeten dion abestia, luzeena eta beraientzat atseginenetariko. Honen ondoren beste bederatzi daude eta esan behar, eta maketa ezagutzen duzuenontzat batez ere, nahiko argi jarraitzen duela aipatutako maketaren bidea bai musika eta bai hitzei dagokienez. Izenburu batzuk aipatzekotan BEGIRA; DAVID ETA GOLIATH (singleean agertzen zen abestia) ZURE ATZETIK; ETSI GABE izendatuko ditugu esanez guzti hauek abesti berriak

direla eta batzuk oraindik zuzenean jotzen ez dituztenak. Hauen artean badaude bi maketetan agertu zirenak, MARI eta JO TA KE baina noski, soinu kalitate hobea eta konponketa batzurekin.

Diskoaren soinuari buruz zerbait esatekotan, aipatu Kaki Arkarazo ibili dela tekniko lanetan eta estudioan hiru aste igaro ondoren nahiko lan ona burutu duela, behintzat Su Ta Garekoak pozik daude azken emaitzarekin nahiz eta singlearen soinu ez den diskokoaren mailara heltzen eta horregaitik pixka bat arduratuta egon ziren L.P.a irten arte.

JAIOTZE BASATIAren aurkezpen ofiziala Maitzaren 11an izango da Eibarko polikiroldegian eta bertan E.H. Sukarra talde eibartarrak ere parte hartuko du. Kontzertua Eibarko Gestorak antolatu du eta esan hor dabilzala jo ta sua egin beharrek egiten festa hori aurrera atera dadin. Aldez aurretik esker mila "Bertsos" eta beste panda guztiari.

Egun horretan denok han bilduko gerala esperoz, hemen uzten zaituztegu Su Ta Gar eta bere JAIOTZE BASATIA lehen lan honekin.

GAZTE MARTXOSOAK SARITZEKO



"Los Sencillos"

Horretarako sariketa erraz eta eroso antolatu dugu. Parte hartu nahi baduzu hona hemen egin behar duzunaren berri: Zeure izen, abizen eta telefono-zenbakia argi eta garbi jarritz erantzun ezaiozu galdera honi preferentzia-ordena markatuz ZEINTZU DIRA EIBARREN ZUZENEAN

"LOS SENCILLOS"en kontzertua apirilaren 20an dohan ikusi eta entzun ahal izateko lau sarrera zozketatuko ditugu

ENTZUTEA NAHI IZANGO ZENITUZKEEN 5 MUSIKATALDEAK?

Erantzunak apirilaren 20rako jaso beharko ditugu. Beraz bizkor ibili. Erantzun guztien artean zozketa egingo da eta emaitzak komunikatuko ditugu

KITTO-INKESTA


Arren, mesedez, oraindik ere baduzu aukera. Aurreko zenbakian leku honetan argitaratu genuen inkesta bete ezazu eta bidal helbide honeta:

"eta kitto" Inkesta
Euskara Zerbitzua
Eibarko Udala
20600 EIBAR

Egia esan espero baino gutxiago jaso ditugu, heldu direnak oso interesgarriak badira ere. Guretzat oso garrantzitsua da zuen eritzen berri edukitzea, azken batean hori da eta geure jokabide eta lan-orientazioak zuzendu eta irakurlearen nahiari erantzun ahal izateko aukera nagusi.

Beraz, geroke laga barik, 5 minutu nahiko dituzu eta, egiguzu mesede hori. Aurrez mila esker.

GURUTZEGRAMA



EZKER ESKUIN: 1.- Adostasun bidean jarri. Objektu baten harrapaketa azkarra adierazten duen onomatopeia. 2.- Lasai. Zaietua. Soreta. 3.- Moile. Greba. Bokala. 4.- Kanpo. Infusioa. Eta. Zeukaten. 5.- Arrastelua. Behiaren arra. 6.- Izenorde pertsonala. Kontsonantea. Zikirituriko zez. Potasioa. Boroa. 7.- Bat. Zoritxarekoa. 8.- Naizen honek. Bokala. Oka egin. Ardi, hitz elkarketan. 9.- Ipar, hots handia. Har ezak. Ez emea. 10.- Txori mota. Ikertu. Aluminioa.

GOITIK BEHERA: 1.- Nekagaitzak. 2.- Txukun, egoki. Ikara. 3.- Goialde. Arrenkurak. 4.- Beteko. Letra grekoa. 5.- Errepikatuz, txori mota. Bizkaiko herri famatu hori. Ipar, -rantz. 6.- Iodoa. Handi. Azken eta lehenengoa. 7.- Barazkia. Bokala. Joaki gara. 8.- Mastak. Kontsonantea. 9.- Oihu luzea. Toka, dute. 10.- Ukatzeko. Txorizo mota. 11.- Biltze. Listu. Kontsonantea. 12.- Roentgen. Eusko sabindarra. Urrea. 13.- Deuna, Santa Ageda. Ekarki aditzaren erroa. 14.- Begirada. Aizkolariek ebakitzen dutena. 15.- Garraio mota. Zati.

Aiuntamentuak Errepublikaren egunaren inguruan omeldixa egingo detsa

Lucas Alberdi: “Pintturiak zeozer esaten badau balixo dau”

Eibarren beneteko artistarik badao bat Lucas Alberdi dogu. Gazte-gaztetatik damaskinauakin hasi ta pintturiakin, eskulturiakin ta relibiakin, bere artia erakutsi izan daben eibartar langilliak detaille osoz bere kuadruak erakutsi doskuz ta bakotxak zekan esanguria be argittu dosku. Berarendako-pintturiak beti zeozer esan nahi dau-. Hori dala ta bere kuadruak oso kuadro esangura handikuak ta gertautakuak agertzen dabezenak dira.



Lucas Alberdi Isasixan jaio zan 1.906xan, gaur Txaltxa danan parian, oktubrian 18xan. Untzagan ibili zan eskolan Serapianeko dendia euan denporan ta berak diñonez, “beratzihamar urtekin hasi nitzan lapitzakin”.

Hamalau urtekin damaskinaua ikastera juan zan Julian Larreategin tallarre-ra. Baiña Julianekin ebillela zera esan eutsan Julianek -berak baiño gehixao ikasi ebala eta berak baiño gehixao ekixala-. Orduan Agustin Larrañagakin ibili zan beste zazpi urte inguruan.

Damaskinauakin danetik eitten zeban, bai pulsera, kollarrak, pitillerak, belarritakuak ta bestelakuak be bai.

Damaskinau faltsua deittutakua be ezautu zeban Agustin Larrañagakin ebillela, ta harekin ikasittakuan beste ofizio bat ikasteko asmuakin alde eñ zeban.

Damaskinau ikasketekin joierixetarako enkarguak eitten ebazen, bandejak eta bestelakuak, berak diñonez: “nik trokelak (moldiak) eitten nittuan Amurriorako ta gero horrekin heurek eitten zebezan kopixak”. Hori biharrori etxian eitten zeban Agustiñek bialduta ze orduan denporan aittak biharra itxi bihar izan zeban ta len ez zeuan oiño moduko pensioñorik ta holakorik.”

dibujua berak beti eñ izan dabela ta gustau jakola agentzen dau Lucasek.

Zeaittik hasi ziñan dibujatzen?

“Amak gura zeban ni kontable edo holakorenbat izatia, baiña hasi bai eñ nitzan baiña kontu asunturik ez jatan neri gustatzen. Neri dibujatzia gustatzen jatan ta hasi nitzanian nere kapritxokuak eitten nebazen asko, beste batzuk enkargautakuak be bai. Baiña generalian nere kapritxokuak izaten zian ta enkargautakuak gitxiao. Homenajietarako eñ ditturazenetan beti bota izan dot firmia.

Eskuduetako enkarguak ta eitten nebazanian kontutan eukitzen neban enkargua eitten zebazenan gauzak jakit-teko, bere historixak... ta gero horrek jakinda dibujoko rrellenua neuk eitten neban”.

Zer da gehixen gustatzen jatzuna?

“Erretratua ta karbontzillua asko eitten dot, bajorreliebiak be asko eitten dittut ta eskultural ta pintturak be bai,

horrek be asko, Damaskinaua eitten neban gehixen orduan.

Dibujuak pillo bat eñ dittut; karbon-zilluakin eñdakuak Eibarren bakar-bakarrak 150 egongo dia, ta Bilbon, Sevillan, Madriden, Kanadan, Inglaterran, Santander, Vitorixan... ta beste leku batzutan be bai. Aranjuezen dao ederra: “La última vuelta al ruedo de Manolete”, benetan dibujo haundixa.”

Zer edo zetarako balio dau pintturiak?

“Pintturiak balixo dau zeozer esaten badau. Nere pintura guztixek zeozer esan nahi dabe.” Danetariko pintturak eñ dittula azaltzen dosku: gerra denporakuak: “gerria beti da txarra”; loibenak, “asko maitte dittut nik loibak”; euskaldun mundukuak: horren artian Juan Sebastian Elcano dedikautakua, Txirrita bertxolarixana (hau brontzezko eskultura dogu), Iparragirrenak (eskulturak eta pinttu-

ta hasi zaitte pinttatzen. Nik esan notsan berrogetabost urte nekazela ta sekula ez nebala pinttau. Orduan kontestau eztan berrogetabost urteko dibujua nekala ta, halantxei, pintturak erregalau eztazen ta lamiña bat emon eztan eittetako ta eñda eruan netsanian esan eztan: -ta zuk sekula ez dozu eñ pinttatzen?-. Ez zotan siñistu nahi. Ordutik aurrera pinttatzen dot. Baiña paisajerik ez dot pinttatzen ze ez dabe ezer esaten. Neretako danak esan bihar dau zeozer, agertu eñ bihar dau zeozer.”

Edozeñ izan leike artista ala jaixo eñ bihar da?

“Jaixo eñ bihar da ta gero eñ eñ bihar da; batzuk jaixotzen dia baiña gero alperrak izaten dia”.

Artistiak berezkua euki edo bere kapazidadiak lantziaren gañian anekdotak bat agertu dosku Lucasek, bere lagun batekin gertautako historixatxo bat da: “Alejandro Marful dibujantia

dana- modura firmatzen zebazen berak eitten zebazanak.”

Irudi maittagarrik bai?

“Bat dakat Leizaola lehendakari zanian hari be erakutsi netsana, bertan Euskal Herrixa zelakua izatia nahi neuken agertzen dot: Iparragirren bizitzako kantua, Gernikako arbolia usuekin (pakia), barkuak portuan (Bilbo), industrixa (fabrikak), baserrixa (baserrixak), lanerako tresnak (tresnak) ta zientzia (liburua eta katalajua) dira kuadruanedo hor dibujan agertu nahi dodazanak Euskal Herrixa nere gustora zelakua izan biharko zan agertzeko. Pakia da bihar douna”.

Errepublikia zer izan zan?

Galdera hau Errepublikia aguna datorrela ta egin detsau Lucasi, erantsuna segiduan jaso dogu:

“Republikia proklamau zanian gu Casa del Pueblon eon giñan, ta goizeko bostak aldian berrogei lagunek urten genduan kalera ta herri guztixa izartu genduan. Zazpiretan proklamau zan ta Alejandro Telleria izan zan alkate orduan.

Goizeko beratziretan Toribiok esaneztan: -Bilbora deittu biajuau iaber zer daon han-. Zer pasatzen dan Bilbon...-No pasa nada-, ta Toribiok nere ondolik eutsan telefonotik: -pues nosotros hemos implantado La República en Eibar-. Toribio ta bixok batera izan giñan errepublikan. Hori jakin zanian esturia zabaldu zan ze leku batzutan ez zan ezer pasau ta gero...aratsaldian Madriden proklamau zan. Eibarren orduan egunian jai hundixa izan zan.

Gero, Francon denporan, eibartarrak sublebau eñ giñan ta... hori zala ta kartzelan egon nitzan Pamplonan. Kartzelan be pinttau eñ neban, pinttatzen nebala ikusi zebanian pinttatzen laga esten baiña tubo batetik begiratze ezten zetan nebilen ikusteko”.

- Amak gura zeban ni kontable edo holakorenbat izatia, baiña hasi bai eñ nitzan baiña kontu asunturik ez jatan neri gustatzen.
- Dibujuak . Aranjuezen dao ederra: “La última vuelta al ruedo de Manolete”, benetan dibujo haundixa.
- Pintturiak balixo dau zeozer esaten badau. Nere pintura guztixek zeozer esan nahi dabe.
- Jaixo eñ bihar da ta gero eñ eñ bihar da; batzuk jaixotzen dia baiña gero alperrak izaten dia

rak), orduko denporako euskaldunak zelakuak zian agertzen dabezanakuak (familixa giruak, euskaldunak ondartzan, beste batzuk).

Berak diñonez: “Madriden ezautu neban Simon Arrieta Bergarako pinttorria ta esan zetan: -damaskinaua laga

Alfan zebilen lanian ta; askotan etortzen zan ni biharrian ikustera ze esaten zeban ikusten gehixao ikasten dala. Ta esaetan behiñ batian enbidixia zekala, ta nik esan netsan: -garanakin konformau bihar gara, al dana eñ bihar da-; ta handik aurrera -al

Lanamendi

Etixerako
elektratresnak

Estaziño, 6

Tfnoa. 11 30 11

Iraolagoitia

Lehenengo iragarkitik
karnabaletako edo
aratuzteetako erreferentzia
kendu eta:

“Jaunartze - errekoratorioak”
Bidebarrieta, 22 Tfnoa. 111617

MUÑO A

ZURE AUTOARENDAKO
ORDEZKO PIEZAK

BIDEBARRIETA 14, 16.

Tfnoa. 11 13 17
11 62 28

Laurel & Hardy
Pub



Unzaga Plaza 11

Tfnoa: 11 10 15 Eibar

Gora Errepublika!!!

Toribio Etxeberriaren "Viaje por el país de los recuerdos" liburuan agertzen den bezala 1931ko apirilaren 12an eibartar guztiak euren botua ematera joan ziren, agure zaharrak eta elbarritu eta gaixo guztiak barne. Errepublikazaleek diferentzia haundiagaitik irabazi zuten (monarkiaren aldekoentzat zinegotzi bat besterik ez hamazazpiren artetik). Apirilaren 14ean, goizeko seiretan, herri guztia Alfonso XIII enparantzan (orain Untzaga plaza dena) zegoelarik udaletxean errepublikaren bandera atera zuten. Herria beste bizitza berri bat hasteko prest zegoen, edo behintzat horrela uste zuten herritarrek momentu hartan. beldurra ere nabaria zen, goizean ailegatutako egunkarietan ez bait zen errepublikari buruzko inongo berririk azaltzen. Momentu hartan bakarrik zirela ohartu ziren, edo lehenak behintzat bai.

"Ni errepublika egunean oraindik jaio gabe negoen" dio Aurora Baskaranek, "baina aitzari askotan entzunda dakaraz makiña bat istorixa. Errepublika beste herrixetan baino zortzi ordu lehenago aldarrikatu zan Eibarren, ta beno, aitzandako eta eibartar guztiendako gauza haundixa izan zan haura. Oso generaziño gogorra izan zan garai hartakua; 34ko erreboluziñuan makiña bat eibartar egon ziren Panplonan preso, gero errepublika garaian nere aitxa moduan beste askok exiliauta joan bihar izan genduan Frantziara,... etab. Euren odolian errepublika oso sartuta zegoen, eta uste dot guri ere zerbait transmititu deskuela."

Herrian zer nolako giroa bizi izan zen egun hortan galdetu diot Aurorari, eta bere esanetan "Kontatu destenez egun hartan poz haundia sentitzen zan, baina esan bihar da estuasunak pasau ebezela be bai, ze pentsaizu, Eibarren errepublika proklamau jakin barik beste herrixetan zer gertatzen zan oso arrisurtsua izan leikian. Anekdotak moduan aitzak kontatzen zeban bazueala garai hartan Beninatxo deitxutako errekadista bat, eta harek lehenengo trena hartu zabanian Bilbora goizeko zazpiretan ikurriña zeuala andra batek sustautu esan ei zetzan: Aizu, ze zabiz ikurrin horrekin? Gordeizu segituan hori, hemen on-

dio ez da ezebe pasau eta! Bukatze-ko esan leiket egun hartan eibartarrek istorixia eitzen zeuazela, eurok jakin barik sortutako istorixia."

Egun haietako giroa eta jendearen erreakzioak azaltzeko Aurora Baskaran (alkatesa), Isaias Albistegi eta Unibertsitateko historiako irakasle bat izan ditugu gure artean

Isaias Albistegik momentu haiek gaztea zelarik pasatu zituen. "Goratzten dut Eibarko, orain Untzaga Plaza denak, Alfonso XIII zeukala izen, ba, apirilaren 14ean plaka hori kendu eta "Errepublika plaza" jarri genion izenburutzat. Jendea oso pozik zegoen, gazteok kaletatik kantuka eta emakumeek etxeetatik lorak botatzen. Balkoi askotan errepublikaren bandera jarri zen. San Juan jailetako festa baino inportanteago izan zen. Guk ez genekien lehenak ginenik, eta hasieran aldizkaria hartu eta titularretan ez zuela ezer berezirik jartzen ikusirik beldurra sartu zitzaigun beharbada ezertarako ez zuela balioko ikusirik. Baina arratsalde aldera dirudenez Bartzelonan aldarrikatu zen, eta geroago herrialde gehiene-

tan. Nire ustez errepublikak herri txikietan zeukan indarra batez ere, haundietan baino askoz gehiago. Eibar moduko herrialdeengatik uste dut gertatu zela momentu hartan gertatu zena."

Azkenik Unibertsitatean historia-ko irakasle moduan dabilen eibartar batekin jardun dugu. Honen ustez "T. Etxeberriak bere liburuan zehatz mehatz agertzen du momentu hartan gertatu zena, nik baino hobeto gainera, berak momentu haiek bizi izan zituelako. Honetaz aparte, eta Eibar lehenengo herria izan zela esatetik aparte, esan dezaket honen zergatia Eibar zenaren ezaugarrietan datzala: herri sozialista gehienbat, herri industrial, ... ambiente honetan askoz errezagoa zen errepublikak irabaztea beste edozein lekutan baino, jendea kontzientziaturik bait zegoen."

Esaldiak:

Aurora Baskaran: "Aitzandako eta eibartar guztiendako gauza haundixa izan zan errepublikia".

Isaias Albistegi: "Udaletxeko Alfonso XIII plazari izena kendu eta "Errepublika plaza" jarri genion izenburutzat".

Istoriako irakaslea: "Eibarren errepublikak irabaztea errezagoa zen herri sozialista eta industrial zela-ko".



I. Ojanguren Argazkia

1931eko apirilaren 13a zen, Estatuan baino egun bat lehenengo.

Egilea: Indalecio

"Errepublika" hitza entzuterakoan zer etortzen zaizu burura?




M^a Dolores Ulibarri eta Luisa Garcia. Etxekoandreak.

"Guk Bermion pasau genduan sasoi ura bertakua gara eta. Oso garai gogorra izan zen: grebak, gosea, langabezia,... jasan genduan. Gaur egun ere garai berdinerak bueltatzen gabilzala dirudi".



Meltxor Unzueta. 72 urte. Jubilatua.

"Oso oroimen tristeak bururatzen zaizkit. Errepublika aldarrikatu ondoren kasoa etorri zen hona, ezin zen egoera hura jasan, anarkia totala zen: langabezia, gosea,...".



Felix Atxotegi. 60 urte. Jubilatua.

"Tiroka be ibilixta nao ni, gorrixak zirala kontraxiak ta. Ganauan moduko belarriak zeukiela, ta buztana ez-takit nolakua ta... holako gezurak sartuz ibiltzen giñan tiroka. Baina errepublika egunakin ez naiz ixa akordaten, sei urte bakarrik nekazen ta."



Felix Sarasketa eta Hilario Urbieto. Jubilatua.

"Zein, hogeitamarrekoa? ez gara akordauko ba? Tropak urten ebenian danok kalera urten genduan, eskopetak hartu, ayuntamietuan zeuan Alfonso XIII izena kendu eta "Ciudad Ejemplar" titulua jarri, ta denok Donostia-runtz joan giñan kamionetan sartuta, han zeuan zentrua ta. Gero bataloiak formau ta zanga, gerrara. Orduan gaziak giñan ta ez gekagun ifungo bildurrik."



Sebastiana Azpeitia. 59 urte. Jubilatuen egoitzan lanean.

"Horri buruz ezin detsut gauza haundirik esan; gu base-rikuak giñan bai, eta aparte bizi izan genduan garai hura. Oin, hori bai, orain baino askoz trankilago bizi giñan, orduan gutxiagokin konformatzen giñan."



Isabel. 68 urte. Etxekoandre

"Errepublika garaian ni gaziñta nitzan ta... ze esango detsut ba... Akordatzen naiz aita ta ama ta errepublikanuk zirala ta pozik bizi izan zebela sasoi haura".

APIRILERAKO AGENDA

ZINEMA:EGO-IBAR taldeak antolatuturik

16an: "Trucker, el hombre y su idea". Zuz.: Francis Ford Coppola.
23an: "haz lo que debes". Zuz.: Spike Lee
30an: "Huida a medianoche". Zuz.: Martin Brees.
Emanaldiak: Unibertsitateko Zinema Aretoa.
Ordutegia: 17:30 eta 21:00

TEATRO

4an: "TEATRO CAROCA" Taldea. Unibertsitatean

LIBURU AURKEZPENAK

12an: "Lukas Alberdi; Bizitza eta Obra"
Hizlariak: RAMIRO LARRAÑAGA, VIRGINIA VEJAS OTALEKU, liburuaren koordinatzailea, AURORA BASCARAN, Eibarko Alkatesa.

Ordua: 19:00 Lekua: Udaletxeko Batzar Aretoa.

Antolatzailea: Eibarko Udala / Kultura Saila.

13an: "EPISTOLARIO: 1941 - 1946"

Egilea: Indalecio Prieto eta Toribio Etxeberria

Aurkezlea: Juan San Martin

Ordua: 13:00etan

Antolatzailea: EGO-IBARRA Batzordea

Erakusketak

Argazkiak:K. Deportiboko Argazki taldeak antolatuturik L.K.A.ren J. Etxeberria Kaleko Erakustokian:

20tik-29ra: SABADELL ARGAZKI TALDEA

2tik 7ra: Galizia eta Euskadiko jantziak, liburuak, eta musika tresnak.

LEKUA:Eibarko Udaletxeko Kultur Aretoa.

12tik 30era: LUKAS ALBERDI ARTISTA EIBARTARRAREN OMENEZKO ERAKUSKETA.

Bere gaiak: -Zezenak, Gerra, Quijote, eta pertsona ospetsuak agertzen dituzten, damaskinatu, eskultura, eta koadroak. LEKUA: Eibarko Udaletxeko Kultur Aretoa.

IRAKURKETA BULTZATZEKO PROGRAMA

Udal Kultura antolatuturik Apirilaren 3, 4, 5, 13, 20 eta 27an:

— Tebeoteka, Imprimaketa tailerra, Comic eta Liburu Trukaketa, Liburuaren inguruko jolasak, liburu konponketa-tailerra.

Tokia: Untzaga Plaza. 16:30etatik-19:30etara.

HITZALDIA

3an: Gaia: "EMIGRAZIOA"

Hizlariak: JOSE RAMON SANINZ FERNANDEZ, Kantabriko Diputazioko Turismo Bulegokoa.

JOSE MANUEL CASAL BARBEITO, CAIXA GALICIA Aurrezki

Kutxako Zuzendaria.

Ordua: 19:30.

Lekua: Udaletxeko Batzar Aretoa.

FOLKLOREA - DANTZA

6an: DANTZA eta ABESBATZA JAIALDIA

ABESBATZAK: SOSTOAK, Galiziako Kultur Etxeko Abesbatza, eta Kantabriko Kultur Etxeko Abesbatza.

DANTZA TALDEAK: Tanos-ko Virgen de las Nieves taldea (Torrelavega). Os Galaios, Eibarkoa. Kezka, Eibarkoa.

Ordua: 22:30

Lekua: Untzaga Plaza

MUSIKA

7an: Udal Bandaren Kontzertua. Reportarioa: Autonomi Elkarretako Musika.

Ordua: 12:00 Lekua: Untzaga Plaza.

28an Udal Bandaren kontzertua eta kalejira.

20an: Rock kontzertua. TALDEA: Barcelonako "LOS SENCILLOS".

Lekua: Ipuruko Polikiroldedia. Ordua: 20:30

Sarrera: aldez aurretik: 600 pta./ takilan: 700 pta.

MINUSBALIOTASUN FISIKO EDO SENSORIAL DUTEN PERSONENTZAKO OPORRAK. 1991 URTEA. Gipuzkoako Diputazioak Gipuzkoako Gutxitu Fisikoen Federazio

Koordinatzailearekin batera atera diren oporrak egiteko laguntzak.

Informazio gehiago: UDAL ONGIZATE SAILA. Isasi Kalea. KULTURAL ARRATE ELKARTEAREN PROGRAMA

BEREZIA

20an:"TOPALEKU"Erakusketak Aretöaren inaugurazioa.

22an: Rafael Castellanos "Cultura, Culturas y demás". Gaiak arituko da.

23an: Peio Zubiria (EGUNKARIAren zuzendaria). Gaia: Egunkaria

proiektua, errealitatea eta gero".

24an: Patxa Kolektibokoek "Iparraldeko Gazteak" gaia tratatuko dute.

25an: Oskorri taldeak "Ehundamaikatoxto kantua". Liburuak aurkeztuko du.

KIROLA

MENDI IRTEERA: 13an: Siones-Cadagua. K. Deportiboko

Mendizale Taldeak Antolatua.

ZIKLISMOA: 7an: "MEMORIAL VALENCIAGA". Eibarko

Txirindulari Elkarretak antolatua.

NORK - ZER

Koordinatzailea:

Fernando Muniozguren.

Erredakzio taldea:

Ana Aizpuru

Idoia Irazola.

Fernando Muniozguren.

Amaia Muruamendiarrak.

Oskar Rekalde.

Arrate Zuloaga.

Aitor Gorosabel.

Jose Luis Gorostegi.

letizia Gomez

Mireia Ugarteburu

Argazkilaria:

Jose Valderrey.

Mireia Ugarteburu.

Literatura:

Ane Sarasketa.

Maketazioa:

Jose Valderrey

Komikia / Marraskia:

Ander Gisasola.

Inprimaketa:

Gertu

ERREDAKZIOAREN OHARRA:

Banaketarako erizpideak: 15urretik gorako euskaldunen bat, gutxienez, daukaten familietara. Jakina, oraindik ere, era honetan ale bi banatu ditugu bakarrik. Beraz, eroldaren akatsen bat dela edo geuk egindakoa, gerta liteke ez jasotzea. Baina kontuz gero buzoietako harrapari-ekin!.

Dena den, eta 21.alean esan bezala hala-kozik edo bestelakorik gertatzen denean dei 118064 telefonora.

calcul
mecano

Zure Bulegoa Jazteko Egokienak Gara

Toribio Etxeberria

Tfnoa. 70-07-50 / 70-11-95

EIBAR (Gipuzkoa)

CONDAL TINDATEGIA

Busti barik garbitzen dugu tintaketak
Etxez-etxeko zerbitzua

Tfnoa: 11 23 64

EIBAR